

## KONTROL MOZIOA

### Empark enpresak ezarritako lan baldintzei buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Kontxako, Katalunia Enparantzako, Okendoko eta Boulevardeko aparkalekuak Donostiako Udalaren jabetza dira eta administrazio-emakida bidez enpresa pribatuek kudeatzen dituzte. 2008. urtean administrazio-emakidak amaitu ziren eta hurrengo enpresek berriro zituzten:

Okendo parkinga--> Gipuzkoa Parking Siglo XXI, S. A.

Cervantes Enparantzako parkinga--> Concha Parking S.A.

Katalunia Enparantzako parkinga--> Aparcamientos Gipuzcoanos S.L.

Boulevardeko parkinga --> Boulevard Aparcamientos S.L.

Aurreko emakidetan Eguisak hiru parking kudeatzen zituen (Okendo, Cervantes eta Katalunia) eta langileak parking batetik bestera mugitzen zituen. Egungo emakidetan, parkingak kudeatzen dituzten enpresak desberdinak izanik, ezin dituzte langileak parking ezberdinetara higitu, zesio ilegalaren aurrean egongo ginatekeelako.

Hiru parkingak kudeatzen dituzten enpresak ezberdinak dira, baina Empark eta Moyua Eraikuntzak konformatuta daude.

Aparkatzaile kategoria duten langile bakarrak Okendo parkingekoak dira. Arazo hau bideratzeko hiru parkingetako langileria Empark enpresara subrogatzen dute, langileak parking batetik bestera libreki higitzeko. Egun, hiru parkingetan lan egiten duten langileetatik sei aparkatzaile dira eta zazpi aparkatzaile-laguntzaileak.

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Parkingetako administrazio kontratazioko baldintzen pleguan, 70. 3. artikulua jasotzen du: "Aparkatzea eta haren instalazioak bereziki zaintzea, eta, hala badagokio, behar diren langileak jartzea, zerbitzuak behar bezalako segurtasun- eta eraginkortasun-baldintzak izan ditzen, erabiltzaileari edozein eragozpen, arrisku edo atzerapen saihestuz. Jendea zuzenean hartzen duten langileak ele bitan egonen dira."

Baina badirudi hori ez dela betetzen ari.

Parking hauetako aparkatzaile-laguntzaileek Atotxako parkinga ere zaindu behar dute. Badirudi aparkatzaile-laguntzaileak haienak ez diren lanak egiten ari direla, horietako lan batzuk aparkatzaile kategoriako langileek egin beharko lituzketela.

Beraz, ez dirudi parking-en pleguetan jasotako eginbeharrak betetzen ari direnik. Esaterako, Okendoko parkinga da 24 orduetan aparkatzaile duena. Kontxako parkingak astean zehar eta goizez aparkatzaileak baditu; larunbatetan aldiz 12:00etatik 20:00etara egoten da soilik; gainontzeko orduetan parkingean aparkatzaile-laguntzaileak daude bakarrik. Katalunia enparantzako aparkalekuan aparkatzaileak astelehenetan eta ostiraletan daude soilik goizez; aparkatzaile-laguntzaileen arreta da eskaintzen dena goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara. Ostegunetan goizeko 06:00etatik 08:00etara gutxi gorabehera laguntzaileak bere lanpostua uzten du Okendo parkingera joateko.

Empark enpresak, Atotxako parkingean, ez du langilerik eta edozer gauza suertatzen bada, Katalunia Enparantzako aparkatzaile-laguntzaileek konpontzen dute. Eta laguntzailerik ez dagoen momentuetan (gauetz adibidez) Atotxako parkinga Kontxako laguntzaileak zaintzen du.

Katalunia Enparantzako parkingean, langilerik ez dagoenean, sortzen diren ezustekoak Kontxako parkingeko laguntzailearekin bideratzen dira, non Atotxako parkingeko ezustekoak ere zuzendu beharko baititu aldi berean.

Bestalde, Madriletik kudeatzen den bezeroen arretarako zerbitzu bat dute parkingek. Edozein arazoaren aurrean: kabinan ez badago langilerik, edota parkingera sartzerakoan ala ateratzerakoan arazorik sortzen bada, edo diru-kutxarekin arazorik badago, Madriletik bideratzen dute arreta eta arretaren zerbitzuak ez du elebidunez egiteko baldintza betetzen.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

2020ko uztailaren 13an egindako Gune Publikoko Batzordean Mugikortasun eta Garraio zinegotzi ordezkariari pleguetan ezarritakoaren EMPARK enpresaren betekizunaz interpelatu genuen.

Egun hartan, ez genuen zinegotzi ordezkariaren partetik erantzun bat ere jaso, Emparkek pleguak betetzen zituela baieztatu zuen, langileek bestelakoa esaten dutenean, eta gainera Udalaren ardura ez zela adierazi zuen.

Parking hauek Udalaren jabetzakoak dira eta, horiek kudeatzeko pleguak daudela jakinik, bertan ematen den kudeaketaren jarraipena egitea Udal Gobernuaren ardura dela uste du udal talde honek

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako parkingak emakidan hartutako enpresek pleguek ezarritakoak betetzen ote dituzten azter dezala eta haiek betetzen ez dituztela ikusiz gero, beharrezko neurriak har ditzala pleguan ezarritakoak bete daitezzen.

Donostian, 2020ko uztailaren 16an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia